

## Altza-Herrera

# Mendia protagonista Herrieran

Hilaren 15etik 19ra bitartean, Mendi-Zaleak elkarteak antolatutako XI. Mendi Astea egingo da Herrieran. Mendi-Zaleak elkarteko kide Imanol Inziarterekin hitz egin dugu asteaz eta elkarteaz.

**Zein da Mendi Astearen funtsa?**

Mendi Astearen diapositiba emanaldiak eskaintzen dira; zenbait mendizalek udan igotako mendietan ateratako irudiak erakusten dituzte. Urtero, mendizale ezagunen bat ekartzen saiatzen gara. Ez dira hitzaldi teknikoak, hau da, hizlariak ez du igoeran erabilitako materialez hitz egiten. Diapositiben bitartez, mendian zer ikusi duen eta zer moduz pasatu duen kontatzen du. Horrexegatik, emanaldiak mendizale orezentzat dira.

**Mendi Asteaz gain, urtean mendi irteera dezente antolatzen ditu Mendi-Zaleak elkarteak. Zer moduz joan dira aurtengoak?**



Gurea elkarte txikia da eta Donostian eta ingurumarietan elkarte ugari daude. Gutxieneko jende kopurua -25 bat lagun- behar dugu irteera garestiegi gerta ez dadin eta batzuetan justu samar gabil-tza kopuru horretara iristeko. Gainerakoan, aurtengo irteeren artean, udaberriaren iratira egin genuen ibilaldia nabarmentzeko nuke. Zoragarria



### Mendi Astearen egitaraua

Diapositiba emanaldi guztiak Herrierako Eskola Publikoan izango dira 20.00etan.

Eguna	Izenburua	Hizlaria
Astelehena 15	"Mujeres en peligro de expansión"	Cecilia Bull
Asteartea 16	"Montañas congeladas"	Zesar Atorrasagasti
Asteazkena 17	"La Palma, irla bizia"	Mikel Albisu
Osteguna 18	"Grandes vías a través de todo el mundo"	Mikel Saez
Ostirala 19	"De roca en roca... y tiro porque me toca"	Xabier Inziarte

izan zen eta gainera eguraldia lagun izan genuen.

**Zenbat bazkide ditu egun elkarteak?**

65 bat. Garai hobeak izan dira. Duela zazpi bat urte gutxi gorabehera 45 lagun elkartzen ginen irteera guztietan eta egun 25-30 joaten gara. Gogoan dut, gainera, irteeraren batean bi autobus atera zirela, hau da, ehundik gora lagun. Egungo gazte askok autoa dute, hortaz, nahiago izaten dute mendira beren kabuz joan. Mendizale helduen kasuan, berriz, apur bat gogaigarria gertatzen zaie beti bikoteki-dearekin joatea eta giroz aldatzeko eta koadrila berriak osatzeko jotzen dutelako elkartera.

**Zer esango zenieke mendizale diren eta elkartearen izena ematera animatzen ez diren horiei?**

Ez dut esango mendira bere kaxa joaten dena oker dabilenik. Hori bai, taldeka joanez gero, jendea ezagutzen duzu eta mendi irteerez gain, urtean beste ekimen batzuk egiten

dira, hala nola afariak. Azken finean, mendi elkartearen bitartez, gizarte harremanak sustatzen dira.

### Elkartasun Eguna

Hilaren 14an, Joan de la Torre (EK) eta Elkartasun Eguna egingo du Altza. "Pentsa ezazu zundak zuzin". Gurea ezazu behar duzuna. Elkartasun Eguna behar duzuna dauden hienak zein egoeratan dauden azalitzea. Eraso batzuk hilteko dira. Ekimenaren helburuak: 12.00etan San Martzial elizan ospakizuna egingo da. Ondoren, frontoan bidezko mendi-irteera eta sensibilizazio posiblerak azalduko dira. Haur eta izar frontoan bertan eskutik irakurketak eta antzerkiak izango dira. Egoeraren ondoren, bereziki zuzenaren ondoren, haur bazkaria egingo da. Aurrerantzean, beste hainbat ekimen izango dira. Eraso batzuk dira. Kuko Altza Kultur Egoeraren ondoren, haur frontoaren ondoren, haur musika jaldia.